

Esparru honetan 2019an emandako finantzazioa baino **% 70 gehiago** da

## **Kutxabankek 1.718 milioi euro bideratu ditu ekonomia berde eta jasangarrira 2020an**

- **792 milioi euro onartu ditu energiaren ikuspegitik eraginkorragoak diren etxebizitzak erosteko 'Hipoteka Berdeetan', merkaturatzen hasi zenetik sinatutako mailegu-hipotekarioen % 26**
- **Enpresen eta korporazioen arloan, 926 milioi euroekin energia berriztagarriak eta trantsizio ekologikoa sustatzen dituzten egitasmoak babestu ditu**

**2021ko urtarrilaren 28an.** Kutxabankek jasangarritasunarekin eta klima-aldaketarekin duen konpromisoan aurrera pausuak egiten jarraitzen du, gizarte eta ingurugiroaren ikuspegitik eragin positiboak dituzten jardueri baliabide-ekonomikoak emanez.

2020. urtean, **1.718 milioi** euro mugiarazi ditu guztira Bankuak energia berriztagarrien aldeko eta karbonoaren murrizketaren aldeko apustua egin duten hainbat proiektu babesteko. Kopuru hau, aurreko urtean emandako finantzazioa eta bermeak baino **% 70 handiagoa** da.

Finantzazioaren zati handi bat **norbanakoek erosi dituzten etxebizitza** eraginkorretara bideratu da, hau da, Xehekako Bankako alorraren eskutik.

Kutxabankek ildo berezia du, **'Hipoteka Berdea'** izenekoa, non baldintza bereziak eskaintzen baitira ziurtagiri-energetiko gorenak dituzten etxebizitzak erosi ahal izateko, hau da, A edo B kalifikazioak dituztenak, eta horiek 'Aseguru Berdearen' bitartez babestu ahal izateko.

laz, guztira **4.022 kontratu** sinatu ziren hipoteka-era berri honen baitan, **792 milioi** euroko balioarekin. Produktu honek onespren zabala jaso du merkatuan, eta horren erakusle da iazko lehen zatian merkaturatzen hasi zirenetik, Kutxabankek sinatu zituen **hipoteken laurdena 'Berdea'** izan dela, zehazki hipoteka berri guztien **% 26**.

Xehekako Bankaren alorrean bertan, Banka Taldeak **hirukoiztu** egin du segmentu 'berdean' eman diren **kontsumorako maileguen bolumena**. Finantzazio hori eraginkortasun-energetikoa hobetu nahi zuten etxebizitzetara bideratu da, isolamendu eta klimatizazio-sistemak hobetzeko. Halaber, finantzaziorako erraztasunak eman dira auto **elektrikoak, hibridoak eta erregai alternatiboak** erabiltzen dituzten ibilgailuak erosteko.

## Enpresekin eta erakundeekin lankidetzan

**Gizarte eta ingurugiro-garapena** sustatzeko ekimenak abiarazi dituzten enpresei eta erakundeei ere babes-finantzarioa ematen jarraitu du Kutxabankek, lekuan lekuko ekonomien mesedetan.

Enpresen eta erakundeen alorretan espezializatutako lan-taldeek **926 milioi** euroko balioa duten eragiketak onartu dituzte, guztiak **ekonomia berde eta jasangarrian** inbertsioak egin ahal izateko. Oro har, energia berriztagarriak sortzeko edo bateratzeko egitasmoak, mugikortasun jasangarria bultzatzen dutenak, edota babespeko etxebizitza eraginkorragoak sustatu dituztenak bideratu ditu Bankuak.

Kutxabankek onartu dituen proiektuan artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, penintsulan **ezarritako energia berriztagarriaren ahalmena hobetzeari** lotutakoak, **ziklo hidrikoak** osorik egokitu edo hobetzeko ekimenak, **biomasa zentralak** mantentzekoak, edota **nekazaritza jasangarria** bultzatu dutenak.

Gainera, etxebizitza partikularretan **eguzki-plakak** jarri ahal izateko lankidetzak-ekimenak sinatu ditu Kutxabankek, energia fotovoltaikoaren autokontsumoa erraztu ahal izateko.

Horrez gain, finantzazio-kontratuak itxi ditu diesela erabili ordez teknologia alternatiboekin mugitzen diren **autobus flota osoak** berritzeko, bai eta **akuikulturako haztegietan** hartutako arrainak garraiatu eta prozesatzeko itsasontzi bat eraikitzeke ere, honela neurritz kanpoko arrantzaren eragin negatiboak eragotziz.